

TOKIA / LUGAR: PLENO ARETOA / SALÓN DE PLENOS

EGUNA / FECHA: 2023/01/16

HASIERA / INICIO: 09:13etan/horas

BERTARATUAK / ASISTENTES:

PRESIDENTEA/PRESIDENTA (EH Bildu-Durango): Doña Ima Garrastatxu Urbaneja andrea

BOZERAMAILEAK/VOCALES:

EH Bildu- Durango: Don Iker Urkiza Quilez jauna
EP-HE-I: Don Julian Rios Santiago jauna
EAJ-PNV: Doña Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andrea
DES-SVD: Doña Jesica Ruiz Pérez andrea

IDAZKARIA/SECRETARIA: Doña Teresa Oleaga Larrinaga andrea

Presidente andreak bilkurari hasiera eman dio goizeko 09:13ak direnena:


Abierta la sesión por la Sra. Presidenta, siendo las 09:13 horas:

* **Garrastatxu Urbaneja presidente andreak (EH Bildu-Durango)** ziber-eraso arazoak iraun bitartean astelehenero 09:10etan Bozerramaileen Batzordea biltzea proposatzen du.

* La Presidenta **Sra. Garrastatxu Urbaneja (EH Bildu-Durango)**, propone reunirse todos los lunes a las 09:10 horas mientras dure la situación del ciberataque.

* 2. Alkateordea den **Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu-Durango)** azaldu du joan den ostiralean Durango Kirolak martxan zegoela. Giza Baliabideetan ere bai, beraien programa hodeian dagoelako eta ordenagailu bat berrikusita dutelako. Udaltzaingoan, Eurocop programa dute eta joan den astean datu guztiak hodeira pasatzen ari ziren; ziurrenik gaur eta bihar bitartean egongo dira martxan. 300eko 173 ordenagailu berrikusi dira eta momentuz bat ere ez dago infektatuta. Berrikusitako ordenagailu eramangarriak jarri dira hainbat sailetan, eta wifi librearen bidez Internet-a dute, baina oraingoz ez dago sare-karpetetarako sarbiderik.

* El 2º Tnte. Alcalde el **Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu-Durango)** comenta que el viernes pasado Durango Kirolak estaba totalmente operativo. En Recursos Humanos también porque su programa está en la nube y tienen un ordenador revisado. En la Policía Municipal, tienen el programa Eurocop, la semana pasada se estaban pasando todos los datos a la nube y probablemente entre hoy y mañana estarán operativos. Se han revisado 173 ordenadores de 300 y no está ninguno infectado. Se han colocado diversos portátiles ya revisados en los diferentes departamentos y tienen internet mediante la wifi libre, pero de momento no hay acceso a las carpetas de red.



Zerbitzariak lokalean erauzten ari dira, Internetera konektatuta egon gabe, infektatuta dauden ala ez aztertzeko eta segurtasun-kopiak berreskuratzen joateko. Berrikusita daudenean, ziurrenik Interneten alta emango da, dena erabilgarri egon dadin. Prozesu luzea izango da.

Outlook-ari dagokionez, litekeena da aste honetan postontziak martxan egotea, segurtasun-kopiak berreskuratzen ari dira eta hodeian ere iraultzen ari dira.

Gaineratu du FACE eta SIR ilaran geratzen direla, ez direla galtzen eta online gaudenean informazio guztia sartuko dela. Zereginak pilotzea aurreikusten da; beraz, litekeena da langile batzuek orain opor-egunak hartzea.

Beste erakunde publiko batzuek eskaini digutena jarduera-protokoloak dira, baina ez dute gaian adituak diren pertsonalik eskaintzen. Beraz, informatika-taldea, azpikontrataturako enpresak eta zibersegurtasunean adituak diren beste enpresa batzuk dira lanean ari direnak.

Epaitegian salaketa jarri zen, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari ere jakinarazi zaio eta, ondoren, Zentro Kriptologiko Nazionalari jakinaraziko zaio.

Urkiza Quilez 2. Alkateordeak (EH Bildu-Durango) argitu du Zentro Kriptologiko Nazionalari "a posteriori" jakinarazten zaiola gertatutakoa eta hartutako neurriak.

* **Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ-PNV) batzordekide andreak** Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzari buruz galdetu du. **Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu-Durango)** azaldu du ez dela laguntzarik ukatu, eta informatikako arduradunak erantzungo duela, teknikari eta arduradun gisa,

Se están arrancando los servidores en local, sin estar conectados a internet, para revisar si están infectados o no y se van recuperando las copias de seguridad. Cuando estén revisados, probablemente se dará de alta internet para que esté operativo todo. Será un proceso largo y costoso.

En cuanto a Outlook, es probable que esta semana estén los buzones en marcha, se están recuperando las copias de seguridad y se están volcando también en la nube.

Continua comentando que FACE y SIR quedan en cola, no se pierden, y cuando estemos online entrará toda la información.


Se prevé que haya acumulación de tareas por lo que probablemente el personal cogerá ahora días vacaciones.

Los ofrecimientos de ayuda de otras instituciones públicas consisten en protocolos de actuación pero no facilitan personal experto en el tema. Por lo tanto, tanto el equipo de informática como las empresas subcontratadas y otras empresas expertas en ciberseguridad es la gente con la que se está contando.

Se interpuso denuncia en el Juzgado, también se ha puesto en conocimiento a la Agencia Vasca de Protección de Datos y posteriormente, se pondrá en conocimiento del Centro Criptológico Nacional.

El 2º Teniente Alcalde **Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu-Durango)** aclara que al Centro Criptológico Nacional se le informa "a posteriori", dando cuenta de lo sucedido y las medidas adoptadas al respecto.

* La Vocal **Sra. Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ-PNV)** pregunta por la ayuda ofrecida por el Gobierno Vasco. El **Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu-Durango)** explica que no se ha denegado ninguna ayuda y que es el responsable de informática quien responderá como técnico y responsable lo que considere oportuno a todos los ofrecimientos de ayuda.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Bozeramaileen Batzordea
Junta de Portavoces

Akta 2023ko urtarrilak 16

Acta 16 de enero de 2023

laguntza-eskaintza guztiei egoki irizten duena.

*** Garrastatxu Urbaneja Presidente andreak (EH Bildu-Durango)** argitu du Zibersegurtasuneko Euskal Zentroa dela, eta Asier Martinez de Pretenaga dela udaleko informatika-arduradunarekin posta elektronikoz harremanetan jarri dena. Gaineratu du eskaintzen ari direna ez direla haien zerbitzuak, baizik eta Zibersegurtasuneko Euskal Zentrotik informazioa eskatzen dutela (araudiaren arabera, 50.000 biztanletik gorako udalek bakarrik dute betebeharrak) zein motatako zibererasoa jasan dugun eta zer neurri hartu diren azaltzeko. EUDELekin hitz egin da gai horri buruz, eta uste da informazio hori bidali beharko litzatekeela jakin ondoren zer eraso gertatu den eta zer neurri hartu behar izan diren. Lehenik eta behin, krisi-egoeratik ateratu behar da, eta gero, gainerako erakundeekin partekatu datuak eta ondorioak.


*** Garrastatxu Urbaneja andreak (EH Bildu-Durango)** zorroztasuna eta seriotasuna eskatu die bertaratutako guztiei gertatzen ari denari dagokionez, erasoak guzti-guztiei eragiten baitie. Baieztapenak egiterakoan, seriotasuna eskatu dio oposizioari, laguntza eskainiz deitu dela esaten denean; izan ere, informatika-arduradunak esan duen bezala, oraindik ez da jaso egoera horretatik ateratzeko laguntza ematera datorren langilerik.

*** Urkiza Quilez 2. Alkateordeak (EH Bildu-Durango)** azaldu du ezin izan direla Batzordeetarako deialdiak egin eta Osoko Bilkurari dagokionez, posible den ala ez baloratuko dela. Galderak egin nahi dituztenei hitza eman die.

*** La Presidenta Sra. Garrastatxu Urbaneja (EH Bildu-Durango)** aclara respecto al tema, que se trata del Centro Vasco de Ciberseguridad y que Asier Martinez de Pretenaga es la persona que se ha puesto en contacto con el responsable de informática del ayuntamiento por correo electrónico. Añade que lo que están ofreciendo no son sus servicios si no que desde el Centro Vasco de Ciberseguridad, piden información (que según la normativa el obligado cumplimiento es para ayuntamientos de más de 50.000 habitantes) sobre qué tipo de ciberataque hemos sufrido y qué medidas se han tomado. Se ha hablado con EUDEL sobre este asunto y se entiende que el envío de dicha información tiene que ser una vez se tenga conocimiento de qué tipo de ataque se ha producido y qué medidas se han tenido que tomar. Lo primero es salir de la situación de crisis y después es cuando se comparten los datos y conclusiones con el resto de instituciones.

*** La Presidenta Sra. Garrastatxu Urbaneja (EH Bildu-Durango)** pide rigor y seriedad a todos los presentes con respecto a lo que está pasando, dado que el ataque afecta a todas y todos. Pide seriedad a la oposición a la hora de hacer afirmaciones cuando se dice que se ha llamado ofreciendo ayuda, porque como ha dicho el responsable de informática, todavía no se ha recibido ningún ofrecimiento de personal que venga a prestar ayuda para salir de esta situación.

*** El 2º Teniente Alcalde Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu-Durango)** explica que no se han podido hacer las convocatorias para las Comisiones y respecto al Pleno se valorará si es posible o no. Cede la palabra a los asistentes que deseen hacer preguntas.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Bozeramaileen Batzordea
Junta de Portavoces

Akta 2023ko urtarrilak 16

Acta 16 de enero de 2023

* **Ruiz Pérez (DES-SVD) batzordekide andreak** galdetu du ea gertatu dena oso serioa izan den eta luzea izango den, aurreko astelehenean azaldutakoarekin sentsazioa beste bat izan baitzen.


* **Urkiza Quilez 2. Alkateordeak (EH Bildu-Durango)** erantzun du hasiera batean ez zekitela zer eragin izan zezakeen erasoak. Zerbitzari bakoitza berrikusi eta segurtasun-kopiak egin behar dira, barne-segurtasuna hobetzeaz gain, eta prozesu horrek denbora behar du. Dena azertu ondoren, dena martxan jarriko da. Zerbitzu batzuk aste honetan egongo dira martxan, posta kontuak, Udaltzaingoa, etab. Baina prozesuak luze joko du, aste honetan ziur, eta datorren astean ikusiko da.

* **Garrastatxu Urbaneja Presidente andreak (EH Bildu-Durango)** gehitu du aurreko astelehenean zibererasoa izan berria zela, kalteen ebaluazioa oraindik ezin zela egin eta egunez egun gehiago jakin dela. Bakoitzak sentsazio desberdina izan dezake eta egoeraren interpretazio propioa egin. Iriondo jaunak eta EUDEleko arduradunak esan dute zenbait enpresa eta administrazio geldirik egon direla bi hilabete zibereraso baten ondorioz. Iriondo jaunak esango du zenbat denbora aurreikusten duen, oraingoz ez dago eperik ere. Gaur egun zer dugun bakarrik esan daiteke. Edozein zibereraso serioa da, eta are gehiago kontuan hartuta ia 30.000 biztanleko zerbitzu publikoa eta hirugarrenetik harremanak kudeatzen dituen administrazioa dela. Informatikako langile guztiekin eta enprekin gaude, % 100ean, arratsaldeko ordutegian zein asteburuetan; horregatik, zorroztasuna eskatzen da.

* La Vocal **Sra. Ruiz Pérez (DES-SVD)** pregunta que lo que ha sucedido ha sido muy serio y que si será largo, dado que con lo explicado el lunes anterior la sensación era otra.

* El 2º Teniente Alcalde **Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu-Durango)** responde que en un principio no se tenía conocimiento de qué podría estar afectado. Se debe revisar cada servidor y hacer copias de seguridad además de mejorar la seguridad interna, y es un proceso que lleva tiempo. Una vez que esté todo revisado se pondrá todo en marcha. Algunos servicios estarán en marcha esta semana, como las cuentas de correo, Policía Municipal etc. Pero el proceso tardará, esta semana seguro y la que viene se verá.

* La Presidenta **Sra. Garrastatxu Urbaneja (EH Bildu-Durango)** añade que la situación del lunes anterior era que se acababa de tener el ciberataque, la evaluación de los daños todavía no se podía hacer y día a día se ha tenido más conocimiento. Cada uno puede tener una sensación distinta y hacer su propia interpretación de la situación. Tanto el Sr. Iriondo como la persona responsable de EUDEL comentan que hay empresas y administraciones que han estado paralizadas por un ciberataque hasta dos meses. Será el Sr. Iriondo el que diga cuánto tiempo prevé que dure la situación; de momento no hay ni siquiera un plazo. Solamente se puede decir qué tenemos a día de hoy. Cualquier ciberataque es serio y más teniendo en cuenta que se trata de una administración que gestiona el servicio público a casi 30.000 habitantes y relaciones con terceros. Estamos con todo el personal de informática y las empresas al 100% tanto en horario de tarde como fines de semana; por ello se pide rigor.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Bozeramaileen Batzordea
Junta de Portavoces

Akta 2023ko urtarrilak 16

Acta 16 de enero de 2023

* **Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ-PNV)** **batzordekide andreak** esan du egoeraren seriotasunaren jakitun direla, eta egin zezakeen guztian lankidetzat eskaini zutela. Adierazi du zorrotz jokatzeko ari direla eta iristen zaizkien datuei buruzko elkarrizketak baino ez direla izan. Gaineratu du ez dakiela nola egin diren laguntza-eskaintzak, baina uste duela arlo horretan esperientzia handiagoa duten beste erakunde batzuetako adituetatik datozen eskaintza guztiak eskertu egin beharko liratekeela.

* **Garrastatxu Urbaneja Presidente andreak (EH Bildu-Durango)** erantzun du eskerrak eman zaizkiola laguntza eskaintza orori, baina ez dela langile espezializatuen eskaintzarik izan, egoera konpontzen laguntzeko. Jaso den bakarra informazio-eskaerak izan dira. Bertaratutakoei hitza eman die, zibererasoari edo beste edozein gairi buruz galderak egin ditzaten, oraingoz ez baitira Batzordeak biduko.

* Ez da inolako galderarik egin eta, beraz, **Garrastatxu Urbaneja Presidente andreak (EH Bildu-Durango)** gogorarazi du premiazko bilerarik ez badago behintzat, hurrengo astelehenean bilduko direla berriro, ordu berean.


* La Vocal **Sra. Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ-PNV)** comenta que son conscientes de la seriedad de la situación y lo que hicieron fue ofrecer su colaboración en todo lo que se pudiera llevar a cabo. Manifiesta que cree que están siendo rigurosos y que solo ha habido conversaciones sobre datos que les llegan. Añade que no conoce en qué términos se han hecho los ofrecimientos de ayuda pero que considera que todos los ofrecimientos que provengan de personal experto de otras instituciones que tienen más experiencia en éste ámbito debería ser agradecido.

* La Presidenta **Sra. Garrastatxu Urbaneja (EH Bildu-Durango)** responde que ha sido agradecido todo pero que no se ha recibido ningún tipo de ofrecimiento de personal especializado que venga ayudar en la vía de solución de esta situación. Lo único que ha habido son peticiones de información. Cede la palabra a los demás asistentes por si tienen alguna otra pregunta sobre el ciberataque o cualquier otro tema, ya que de momento no se van a celebrar las Comisiones.

* No se formula ninguna pregunta por lo que la Presidenta **Sra. Garrastatxu Urbaneja (EH Bildu-Durango)** recuerda que si no hay ninguna reunión urgente se volverán a reunir el siguiente lunes a la misma hora.

Ez-ohiko batzarreko gaiak aztertu ondoren, 08:20an lehendakariak bilkura bukatutzat eman du; eta nik, idazkariak, fede ematen dut.

Y habiendo finalizado con los asuntos a tratar, siendo las 08:20 horas, se da por finalizada la sesión extraordinaria; de todo lo cual yo, como Secretaria, doy fe.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Bozeramaileen Batzordea
Junta de Portavoces

Akta 2023ko urtarrilak 16

Acta 16 de enero de 2023

Ima Garrastatxu Urbaneja andrea

Iker Urkiza Quilez jauna

Jorge Varela Dorrio jauna

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andrea

Jesica Ruiz Perez andrea

Teresa Oleaga Larrinaga andrea